

## Gabon hauetan, Illunbe berriro ere disuasio-aparkaleku bihurtuko da eta hirigunera iristeko doako autobusa izango du

- Ekimenak 2020ko udan izandako arrakasta ikusita, Illunbeko aparkalekua Donostiako hirigunearekin elkartuko duen lotura-autobusen zerbitzua jarriko dute berriro azaroaren 29tik urtarrilaren 8ra bitartean.
- Bi zerbitzuak doakoak izango dira eguneko bisitarien mugikortasuna errazteko asmoz. Hala, haien esperientzia hobetu eta hirigunera iristen diren autoen sarrera gutxituko da, tokiko merkataritza kontsumoa sustatzeaz gain.
- Donostia Turismoaren, Donostiako Udaleko Mugikortasun Sailaren, Dbusen eta San Sebastián Shopsen arteko lankidetzari esker jarriko da abian ekimena



**Etorri Donostiara eta doan aparkatu**

Eguberri honetan **etorri** Donostiara, **P doan** ilunben, doako izango duzu 20 minuturo, eta argiztapenez, merkaturaz eta gabonetako erosketetaz **gozatu**.

+ info: [www.sansebastianturismoa.eus](http://www.sansebastianturismoa.eus)

Donostia San Sebastián EUSKADI BASQUE COUNTRY #Basqueexperience SAN SEBASTIÁN SHOPS

Donostia Turismoak bere Gida Planean egindako **apustuaren** ardatz nagusietako batzuk dira hauek: **jasangarritasuna**, donostiarren eta bisitarien arteko oreka eta hiriko mugikortasuna hobetzea. Testuinguru honen baitan sortu da Dbusek eskainiko duen **doako lotura-autobusa** abian jartzeko plana. Autobusak **Illunbeko aparkalekua** hirigunearekin lotuko du Gabon hauetan. Horren bidez, bisitatzen gaituztenei ibilgailua aparkatu ahal izateko toki bat eskaini nahi zaie **hirigunera sartzea eragotziz** eta, hala, hirigunean pilaketak gertatzea ekidinez.

Ekimena iaz sortu zen Donostia Turismoaren, Donostiako Udaleko Mugikortasun Sailaren eta San Sebastián Shopsen arteko lankidetzari esker. 2020ko udan izandako arrakastaren ostean, Gabon hauetan esperientzia errepikatzea erabaki dute egun seinatu hauetan merkataritza, ostalaritza eta turismoa ere

dinamizatzeko asmoz eguneko bisitariak erakartzen lagunduko duen aparkalekuko eta doako autobuseko zerbitzu honen bidez.

Turismo Jasangarriko zinegotziak, Cristina Lagék, azpimarratu duenez: *“garrantzitsua da honen moduko ekintzen bidez tokiko ekonomiari babesa ematea; izan ere, Donostiako enpresak dinamizatzen dituzte eta, denok dakigun moduan, une zailak bizi dituzte enpresa horiek”*. Gainera, *“Covidak eragindako osasun-krisiaren ondorioen ondoren ekimen hau doan bideratu ahal izateko egindako ahalegina”* nabarmendu nahi izan du.

Beste udalerrri batzuetatik datozen eta hirigunera sartzen diren automobilen kopurua gutxitzeko mugikortasun jasangarria sustatzea da Donostia Turismoaren eta Donostiako Udaleko Mugikortasun Sailaren lehentasunetako bat. Arrazoi hori dela eta, Mugikortasuneko zinegotziak, Pilar Aranak, aipatu duenez, *“Mugikortasunerako oso ekimen positiboa da, izan ere, ekintza honi esker, errazagoa izango da hiria bisitatzea eta garraio pribatua alde batera uztea. Abenduan, pertsona asko etortzen dira Donostiara erosketak egitera eta zerbitzu honek, hain garrantzitsuak diren egun hauetan, erraztasunak emango dizkie saltokiei beren jarduerari berriro ekiteko, baina trafikoari ahalik eta kalte gutxien eragiten saiatuz”*. Gainera, *“ekimena ezinezkoa izango zen hura ordaintzeko eta martxan jartzeko inplikatu diren agente guztien laguntzarik gabe”* gaineratu du.

Lotura-autobusak **Illunbeko aparkalekua hirigunearekin lotuko du** Errondo pasealekuaren hasieran (Menchu Gal parkearen alboan) dagoen geralekuaren bidez. **Zerbitzua 20 minutuko maiztasunarekin** eskainiko du. Illunbetik irteerak **10:30etik 13:50era, eta 15:30etik 20:10era** izango dira. Illunbera itzultzeko autobusa **Ehunurteurrenaren plazatik aterako da 10:40etik 14:00etara eta 15:40tik 20:20ra, eta autobusen maiztasuna** 20 minutuz behingoa izango da.

Geltokiak totem eta kokapeneko mapa batekin seinaleztatuta egongo dira errazago topatzeko, eta iritsiera eta irteera toki beretik egingo dira.

**Aparkalekuko eta doako autobusaren zerbitzua** hiriaren sarreretan egongo diren kartelen, Donostia Turismoaren webgunearen, sare sozialen, irratiko iragarrien eta onlineko bannerren bidez iragarriko dira. Hiriko saltokiek ere disuasio-aparkalekuaren berri emango dute QR kodeak izango dituzten display-en bidez. Informazio guztia hemen egongo da: [www.sansebastianturismoa.eus](http://www.sansebastianturismoa.eus).

## Illunbe volverá a ser parking disuasorio esta Navidad y tendrá autobús gratuito al centro

- Tras el éxito que esta iniciativa tuvo el verano de 2020, se pone de nuevo en marcha un servicio de bus lanzadera que conectará el parking de Illunbe con el centro de San Sebastián desde el 29 de noviembre al 8 de enero.
- Ambos servicios serán gratuitos, con el objetivo de facilitar la movilidad a visitantes de día, mejorando su experiencia y reduciendo la entrada de coches al Centro de la ciudad, además de fomentar el consumo en el comercio local.
- La iniciativa se pone en marcha gracias a la colaboración entre Donostia San Sebastián Turismoa, el Departamento de Movilidad del Ayuntamiento de San Sebastián, Dbus y San Sebastián Shops.



**Ven a Donostia y aparca gratis**

Esta Navidad ven a Donostia, **gratis** en Illunbe, con **gratuito** al centro cada 20 minutos, y disfruta de la iluminación, mercados y compras navideñas.

+ info: [www.sansebastianturismoa.eus](http://www.sansebastianturismoa.eus)

Logos: Donostia San Sebastián, EUSKADI BASQUE COUNTRY #Basqueexperience, SAN SEBASTIÁN SHOPS

Uno de los ejes principales por los que **apuesta** Donostia San Sebastián Turismoa en su Plan director es la **sostenibilidad**, el equilibrio entre donostiarra y visitantes y la mejora de la movilidad en la ciudad. En este contexto, nace la puesta en marcha de un **bus lanzadera gratuito** que prestará Dbus y que conectará el **aparcamiento de Illunbe** con el Centro de la ciudad durante estas próximas navidades. Se trata de facilitar a quienes nos visitan un lugar para estacionar su vehículo **evitando que accedan al centro de la ciudad** y así evitar que éste se congestione.

La iniciativa surgió el año anterior de la mano de Donostia San Sebastián Turismoa, el Departamento de Movilidad del Ayuntamiento de San Sebastián y San Sebastián Shops. Tras el éxito del verano de 2020 se ha querido volver

esta próxima navidad a repetir la experiencia para dinamizar también en estas fechas el comercio, la restauración y el turismo a través de este servicio de parking y bus gratuito que fomentará la atracción de visitantes de día.

La concejala de Turismo Sostenible, Cristina Lagé, ha subrayado *“la importancia de apoyar la economía local a través de acciones como esta que dinamizan a las empresas donostiaras que, como bien sabemos, están pasando un momento difícil”*. Además, ha querido destacar *“el esfuerzo que se ha hecho para llevar a cabo esta iniciativa de forma gratuita, tras las consecuencias de la crisis sanitaria provocada por el Covid”*.

Fomentar la movilidad sostenible para reducir el número de automóviles provenientes de otras poblaciones entrando al centro urbano de la ciudad, es una de las prioridades de Donostia San Sebastián Turismoa y el departamento de Movilidad del Ayuntamiento de San Sebastián. Por ese motivo, la concejala de Movilidad, Pilar Arana, ha señalado que *“se trata de una iniciativa muy positiva para nuestra movilidad, ya que hará mucho más cómodo que quienes nos visiten transiten por la ciudad, liberándola de vehículos privados. Diciembre es un mes en el que muchas personas vienen a hacer sus compras a Donostia y este servicio va a facilitar que los comercios puedan retomar su actividad en unas fechas tan importantes tratando de que se generen las menores afecciones al tráfico”*, añadiendo que *“la iniciativa no hubiera sido posible sin la colaboración de todos los agentes que se han implicado para sufragarlo y ponerlo en marcha”*.

El bus lanzadera **conectará el parking de Illunbe con el Centro** a través de una parada al comienzo del Paseo de Errondo, junto al parque Menchu Gal, ofreciendo su **servicio cada 20 minutos**. Las salidas desde Illunbe serán **desde 10:30h a 13:50 h y desde las 15:30 a 20:10h**. El autobús de vuelta a Illunbe saldrá desde la **plaza del Centenario: desde 10:40h a 14:00 y desde las 15:40 a 20:20 h, con una frecuencia de un bus** cada 20 minutos.

Las paradas estarán señalizadas con un tótem y mapa de ubicación y para facilitar su localización, la llegada y la salida se harán desde el mismo punto.

**El servicio de parking y bus gratuito** se anunciarán a través de carteles indicadores en las entradas de la ciudad, en la página web de Donostia San Sebastián Turismoa y sus redes sociales, a través de cuñas en radio y banners online. También los comercios de la ciudad anunciarán el parking disuasorio a través de unos displays con código QR. Toda la información se podrá consultar en [www.sansebastianturismoa.eus](http://www.sansebastianturismoa.eus).